

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Zierbenako Udala**

Zierbenako udalak beste udalerrri batzuetako kiroldegietako igerilekuetara joatearren ordaindutakoagatik emango dituen diru-laguntzak arautuko dituen oinarriak onestea.

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko martxoaren 22an egindako saioan, beste udalerrri batzuetako kiroldegietako igerilekuetara joatearren ordaindutakoagatik emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak onestea erabaki du. Erabakia ondorengo da:

Beste udalerrri batzuetako kiroldegietako igerilekuetara joatearren ordaindutakoagatik diru-laguntza jasotzeko oinarriak.

1. Xedea

Zierbenako Udalak kirola, osasuna eta kirola, frontoia eta kiroldegiko zerbitzu-programak ditu. Izan ere, programa horien xedea da Zierbenako auzokide guztiek sarbide publikoa izan dezatela, kirola egitea guztiontzako onuragarria delako iritzia baitago.

Zierbenako kiroldegiko instalazioetan igerilekurik ez dagoela kontuan hartuta, Zierbenako herritarrek beste udalerrri batzuetako igerilekuetara joan behar izaten dute.

Deialdi honen xedea da Zierbenako auzokideak beste udalerrri batzuetako kirol instalazioetako igerilekuetara joateko bazkide egin izanagatik diru-laguntzak ematea.

2. Emateko baldintza-betekizuna

Erabaki honetan diru-laguntza hauek jaso ahal izateko arauak eta oinarri arautzaileak xedatzen dira:

- a) Diru-laguntza hauek emateko eskumendun organoa Tokiko Gobernu batzordea da.
- b) Diru-laguntza ematea eta gastuen onespina, dagokion aurrekontu partidaren kargura izango da, hain zuzen ere, Aurrekontuko Gastuen IV. Kapituluaren kargura, eta gehienez ere udal-aurrekontuan partida horretarako ezarritako zenbatekoa izango da.
- c) Emate-prozeduraren izapidetzea akordio honetan xedatutakoa betez egingo da.

3. Diru-laguntzaren onuradunak

Diru-laguntzaren onuradunak Zierbenako udal-mugaratean erroldatuta dauden pertsona fisikoak besterik ez dira izango.

4. Onuradun izateko baldintzak

Eskatzaileek ondorengo baldintzak bete behar izango dituzte:

- Aukeratutako kiroldegian izen-ematea egiterako unean Zierbenako udalerrrian erroldatuta egotea.
- Udal zergen betebeharretan egunean egotea.
- Ebazpen irmo baten bitartez diru-laguntzak jasotzeko aukera galtzearekin santzionatua ez egotea, araudi honen arabera edo horrela ezartzen duten beste lege batzuen arabera.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoa betetzea.

**5. Epea**

Eskaerak irailaren 1etik urriaren 31 bitartean aurkeztuko dira.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan eta horrela egiten ez badu, bere eskaria ez da kontuan hartuko.

6. Dokumentazioa

- Zierbenako Udalari zuzendutako eskaera.
- Zierbenako udalaren mende ez dauden instalazioak erabili izanari dagokion ordainagiria, faktura, edo egiaztagiria.
- NAN-aren kopia.
- Aukeratutako instalazioetako abonatu-txartela.

7. Diru-laguntza emateko irizpide objektiboak, eta hala dagokionean, horien haztapena

Udalak interesdunari diruz lagunduko dio, oinarri hauetako eranskinean ezarritako gehienezko zenbatekoak emanaz, horretarako, beste udalerrri batzuetako kiroldegietako «bazkide txartela» ordaindu duela egiaztatu beharko du.

Izaera pribatua duten zerbitzu edo instalazioetako erabiltzaileei ez zaie ordainduko, besteak beste, gimnasioetako etab. Ezta berariazko ikastaroetara edo denboraldi baterakoetara joatea ere.

8. Banakako diru-laguntzaren zenbatekoa edo zehazteko irizpideak

Kreditu nahikoa egonez gero, diru-laguntza eranskinean agertutakoa izango da.

Aurrekontuko partidan egindako eskaera guztiei aurre egiteko kreditu nahikoa egon ezean, kantitateen hainbanaketa egingo da.

ZENBATEKOAK
URTEKO ORDAINKETARAKO

	Euro
Banakakoa (18 urtetik gorakoak)	60,00
Familiarra	76,00
Banakako (18 urtetik beherakoak)	43,00

Hiruhileko edo lauhileko ordainketak, hainbanaketaren bitartez egingo dira.

9. Dokumentazioa egiaztatzeko eskumena

Udalak interesdunak aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa dela egiaztatu ahalko du.

Zierbenan, 2018ko apirilaren 24an.— Alkateak, Iñigo de Loyola Ortuzar Angulo